



Hirigintza, Etxebizitza eta Obrak

Udal-zerbitzuak

Hiri-Kontserbazioko Alorra

- ✉ Armada etorbidea, 2 - 9. sol. - 31002
- ☎ 948 420470
948 420475
- 📠 948 420313
www.pamplona.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Eraikinak mantentzeko lanak.
- Ibilgailu Parkea.
- Berdeguneak eta harresiak.
- Obrak, eremu publikoan eta aparkalekuetan.
- Hiri-hornigarriak.
- Hiri-argiteria.
- Eremu publikoaren garbiketa.

Proiektu Estrategikoetako Alorra

- ✉ Armada etorbidea, 2 - 9. sol. - 31002
- ☎ 948 420300
948 420303
- 📠 948 420324
www.pamplona.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Proiektuak erredaktatu eta obra berriak egitea.

Hirigintza eta Etxebizitza Alorra

- ✉ Armada etorbidea, 2 - 5. sol. - 31002
- ☎ 948 420380
948 420381
- 📠 948 420389
www.pamplona.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Planeamendua eta hiri-antolamendua.
- Planeamenduaren garapena eta kudeaketa.
- Trafikoaren, garraioaren eta aparkalekuen planeamendua eta antolamendua.
- Etxebizitza.
- Zaharberritzea.
- Hirigintzako lizentziak, jarduerari buruzkoak, irekitzeak, pasabideak erabiltzekoak eta eremu publikoa okupatzekoak.
- Aurri-egoerak eta eraikuntzako patologiak.
- Exekuzio-aginduak eta ordeko exekuzioak.
- Legezkotasunaren kontrola, aurreko gaitan.

Hirigintza Gerentzia

- ✉ Armada etorbidea, 2 - 6. sol. - 31002
- ☎ 948 420900
- 📠 948 420901
www.pamplona.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Iruñeko hiri-planeamenduaren erredakzioa.
- Lurzoruaren kudeaketa.
- Urbanizazio berrien exekuzioak.
- Kontsultei erantzutea, ondoko gaitan: plan partzialak eta plan bereziak, xehetasun-azterlanak, antolamendu-azterlanak, urbanizazio-proiektuak, birpartzelazio-proiektuak, partzelazio-lizentziak, proiektuak erredaktatzeko lehiaketak, lurzoru enkanteak, desjabetzeak, salerosketak, trukeak, orube-erregistroak eta abar.

Hiria Zaharbertzeko Bulegoa

- ✉ Hilarión Eslava k., I. B - 31001
- ☎ 948 224481
- ☎ 948 225044
- 📠 948 222169
www.pamplona.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera (08:30 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Txosten eta azterlanak, Alde Zaharreko eta I. eta II. Zabalgunetako berariazko planeamenduaren gainean.
- Alde Zaharreko zaharbertze-lanak, eta, oro har, hiri osoan eta araupean, neurri batean edo osorik, zaharbertu behar diren eraikina; horrek barne hartzen du kasuan kasuko obretarako lizentzia ematea.

Pamplona Centro Histórico

- ✉ Kale Nagusia, 59 - 31001
- ☎ 948 203474
- 📠 948 203475
- @ pch@pch.es
- 🕒 Astelehenetik ostegunera: 09:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00. Ostiraletan: 09:00 - 14:00.

Zerbitzu nagusiak:

- Alde Zaharra zaharbertu eta suspertzeko sustapena.

Nafarroako Gobernuko zerbitzuak

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

- ✉ San Ignazio etorb., 3 - 31002
☎ 848 427401
848 427402
848 427405 (herri-lanak)
848 427536 (garraioak)
900 400100 (errepideei bu-
ruzko informazioa)
- 📠 848 427266
@ obras.publicas@cfnavarra.es
(herri-lanak)
transportes@cfnavarra.es
(garraioak)
www.navactiva.com
www.navarra.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Bide eta Eraikuntza Zerbitzua.
- Zainketa Zerbitzua.
- Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzua.
- Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzua.
- Garraioaren Antolamendu eta Kudeaketarako Zerbitzua.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

- ✉ Armada etorb., 2 - 31002
☎ 848 427638
(informazio orokorra)
848 427638
(ingurumena)
848 427631
(ehiza eta arrantza-baime-
nak)
848 427589
(jarduera sailkatuak)
www.navarra.es
- 🕒 Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Nafarroako Ingurumen Kontseilua.
- Nafarroako Uraren Kontseilua.
- Nafarroako Oihangintzako Kontseilu Aholku-emailea.
- Ehizako Batzorde Aholku-emailea.
- Arrantzako Batzorde Aholku-emailea.
- Viveros y Repoblaciones SA sozietate publikoa.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

✉ Armada etorb., 2 - 31002

☎ 848 427638 (informazio orokorra)

848 426252 (BOE)

848 427553 (lurraldearen antolamendua eta etxebizitza)

848 427562 (etxebizitzei buruzko informazioa)

848 427580 (zaharberritzea)

848 427570 (bizigarritasun-zedulak)

📠 848 421346

@ servicio.vivienda@navarra.es
www.navarra.es
sitna.cfnavarra.es

🕒 Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 14:30).

Zerbitzu nagusiak:

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua.
- Etxebizitza Zerbitzua.
- Lurraldearen Antolamenduko Batzordea.
- Gestión Ambiental-Viviendas de Navarra SA sozietate publikoa (VINSA).

Iruñerriko Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa (ORVE)

✉ Joaquín Azcárate k., zk.g. - Beheko sol. - 31600 Burlata

☎ 948 130233 (etxebizitzaren zaharberritzea)

948 315600 (hirigintzari buruzko aholkularitza)

📠 948 140385

@ orve@infonegocio.com

🕒 Astelehenetik ostiralera
(09:00 - 14:00).

Zerbitzu nagusiak:

- Aholkularitza, etxebizitzari eta hirigintzari buruz, hala udalentsat nola partikularrentzat.
- Iruñerriko etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzen kudeaketa.

Etxebizitzari Buruzko Informazio Zerbitzua

✉ Pfo XII.aren etorb., 33 ezk. - solairuartera A.

📞 **902 117912 (hitzordua aurrez egiteko)**

📠 948 277702

🕒 Astelehenetik ostegunera:
10:00 - 13:30 eta 16:30 - 18:00.
Ostiraletan: 10:00 - 13:30.

Zerbitzu nagusiak:

- Errenten eguneratze eta igoerak.
- Hiri-errentamenduak.
- Etxebizitzak erosi edo erabiltzeko kontratuak.
- Etxebizitzak erosteko maileguak.
- Jabetza horizontala.
- Hiri-jabetza.

Nafarroako Lurralde Informazio Sistema - SITNA (Web orria)

✉ Tomás Caballero parkea, 1 - 3. sol. - 31005

📞 **848 427956**

📠 848 427945

@ sitna@navarra.es
sitna.navarra.es
idena.navarra.es
ide.pamplona.es

SITNA web gunearen zerbitzu nagusiak:

- Nafarroa osoan barna bi eta hiru dimentsiotan nabigatzeko aukera, aireko ikuspegitik.
- GPS bidezko ibilbideak: web orriak aukera ematen du ibilbide bateko hainbat puntu markatu eta ordenagailuak ibilbide horren profila emateko, luzera eta guzti. Datuak behera karga daitezke, satellite bidezko lokalizazioko aparatu eramangarrietara.
- Turismoa eta ingurumena: Sistemak Nafarroan ostatu eta jatetxeak aurkitzea ahalbidetzen du, bai eta ingurumen-baliabideak eta natur parkeak ere.
- Katastroko lurzati-identifikazioa eta lokalizazioa.
- Posta-helbideak ematea.

Trabajos Catastrales (TRACASA)

✉ Sadarreko errepidea, zk.g. (Sario eraikina) 1. sol. - 31006

📞 **948 240550**

📠 948 249209

@ tracasa@tracasa.es
www.tracasa.es

🕒 Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 14:00 eta 15:15 - 17:30.
Ostiraletan: 08:00 - 14:15.
Udan: 08:00 - 14:00 (astelehenetik ostiralera).

Zerbitzu nagusiak:

- Hiri- eta landa-lurren katastroaren ezarpena eta mantentze-lanak.
- Kartografia analitikoa eta ortoargazki digitalak.
- Kartografia (kale-mapak) editatu eta argitaratzea.
- Hiri-plangintza.
- Geografia-informazioko sistemak (GIS).
- Ingurumenari buruzko azterlanak.
- Teledetekzioa eta satellite bidezko irudien tratamendua.
- Proiektuen ingeniariatza.

Viviendas de Navarra (VINSa)

✉ Sarasate pasealekua, 38 - 2.
sol. - 31001
Eneko Aritza k., 21 - Atzealdea.
- 31007 (Alokairu Gaztea).
Gorriti k., 24 - 31004 (BOEtara-
rako kanpainetan soilik)



948 220819

**948 206299 (alokatzeko
etxebizitzaren burtsa)**

**902 540606 (hitzordua au-
rrez egiteko)**



948 222991



vinsa@vinsanavarra.es

aquilerjoven@vinsanavarra.es

www.vinsanavarra.es



Astelehenetik ostiralera
(08:00 - 15:00).

Gorriti kaleko bulegoa:

08:00 - 20:00

(astelehenetik ostiralera).

Gorriti kaleko bulegoa, udan:

08:00 - 15:00

(astelehenetik ostiralera).

Zerbitzu nagusiak:

- Etxebizitza publikoen sustapena, hala alokatzeko nola sa-
lerosketan eskuratzeko.
- Lorzoria sustatzaile pribatuei esleitzeko lehiaketak.
- Alokatzeko etxebizitzaren burtsa.
- Gazteek etxebizitza alokatzeko laguntza.

Arbolak eta lorategiak

Nire kalean edo auzoan arbolak landatzeko eskatu nahi dut.

Zuloren bat libre badago, edo lehenago arbola bat bazegoen eta edozein arrazoi medio erretiratu bazen, arbolak berriro jartzeko eskatu, 010era edo Hiri Kontserbazioko Alorrera deituta.

Halakorik inoiz izan ez duten hiriko kale edo aldeetan arbolak landatzeko, idatziz eskatu behar duzu.

Kalean (edo parkean) zuhaitz bat erori da (edo hondaturik dago, edo gaixorik).

Jarri harremanetan gurekin, eta brigada berezi bat joango da eroritako arbola erretiratzera edo egoera arrisku-tsua sor ditzaketen adarrak moztera. Bestalde, kaleetako eta gunee publikoetako arbolen osasun-egoeraren mantentze-lanean ere arduratzen gara.

Hornigarri bat baldintza txarretan dago (halako) parkean.

Ur-hartuneraren bat egoera txarrean dagoela erreparatuz gero, ez dabilela edo gaizki dabilela, edo ohartzen bazara pintadak edo kartelak daudela, edozein parke edo lorategitako hornigarrietan, edo beste edozein gertakari hautematen baduzu, hiriko parke eta lorategien kontserbazio-egoerari lotua dena, jarri harremanetan gurekin, eta kontuan hartuko dugu, kasuan-kasuko jarduketara gauzatze aldera.

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 225644

☎ 010

Udaleko erregistroak

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

Udaleko erregistroak

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

Udaleko erregistroak

Galtzadak eta espaloiak

Nola lortzen ahal dut agiria, nire kalearen izena edo zenbakia aldatu dela egiaztatzeko?

Idatziz eskatu behar duzu, Hirigintza eta Etxebizitza Alorrean (Armada etorbidea, 2-5. sol.) edo Udaleko erregistroetan; egiaztagiri bat emanen dizugu, non finkaren helbidea eta zenbakia azalduko baitira, edo, hala gertatu bada, kasuan-kasuko kalearen izenaren aldaketa.

Zulo bat dago kalean.

Galtzada edo espaloietan zoru-harroketarik edo zulorik hautematen baduzu, jarri harremanetan Hiri Kontserbazioko Alorrarekin, edo bestela, oioera deitu.

Nire auzoko espaloiak ez daude egokiturik minusbaliatuentzat.

Idatziz eskatzen ahal duzu, Hiri Kontserbazioko Alorrean edo Udaleko erregistroetan, zintarriak gunee batean edo gehiagotan behera egokitzeke, espaloia jakin batean, minusbaliatuen mugikortasuna errazteko.

Halako iturri publikoa ez dabil (edo ura galtzen du, edo...).

Iturri publiko bat gaizki badago, edo ez badabil, oioera edo Hiri Kontserbazioko Alorrera deitzea baino ez duzu, eta matxura guri jakinarazi.

Hirigintza eta Etxebizitza Alorra

Udaleko erregistroak

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Udaleko erregistroak

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Hodi bat buxaturik dago (edo estalkia hautsita dauka, edo...).

Antzematen baduzu sare orokorreko hodi bat buxaturik dagoela, edo estalkia hautsita daukala, edo lekutik mugituta, edo, bestela, hodiraino iritsi behar baduzu -isurbide partikular bat libratzeko-, deitu 010 telefonora edo jarri harremanetan Hiri Kontserbazioko Alorrarekin .

Argiak

Nire kaleko argiak ez dira pizten (edo hondaturik daude).

Ikusten baduzu farol bat edo gehiago ez direla pizten -edo ez direla egunez itzaltzen-, edo, bestela, beste edozein arazo hautematen baduzu, hiriko argietan, deitu Hiri Kontserbazioko Alorrera edo 010era.

Farolak garbitu edo margotzeko beharra dagoela jabetuz gero, idatziz eskatzen ahal duzu.

Kale-argi gehiago behar dira.

Idatziz eskatu, farola berriak paratzeko, eskaera Udaleko erregistroetan edo Hiri Kontserbazioko Alorrean aurkeztuta.

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948420470

☎ 010

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

Udaleko erregistroak

Hiri-hornigarriak

Banku bat hautsita dago.

Antzematen baduzu banku bat hautsita dagoela, deitu 010era edo Hiri Kontserbazioko Alorrera, eta hura konponduko dugu.

Garbiketa

Pintada bat egin dute.

Deitu 010era edo Garbiketa Zerbitzura. Zerbitzu horrek erai-kin publikoetako, hiri-hornigarrietako eta gune publikoetako pintadak eta kartelak ezabatuko ditu.

Nire kalea zikin dago.

Garbiketa-brigadek inguruabar jakin bat dela medio (urez-tatzeko mahuka, zikinkeria, olio-orbanak, galtzadan, is-tripu baten hondarrak, altzariak eta trasteak eremu publikoan utziak, eta abar) eremu publikoan aparteko eran jardun behar dutela uste baduzu, jo ezazu 010era edo Hiri Kontserbazioko Alorrera.

Paperontzi bat (edo edukiontzi bat) gaizki dago (edo beteta).

Paperontzi bat hautsita badago edo zabor-edukiontzi bat zikin edo mukuru badago, deitu Mankomunitatera edo 010era. Halakoen kokagunea aldatzeko edo gehiago paratzeko ere eska dezakezu.

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948 420470

☎ 010

Hiri Kontserbazioko Alorra

☎ 948420470

☎ 010

Iruñerriko Mankomunitatea

☎ 901 502503

☎ 010

Eremu publikoaren okupazioa

Dorre-garabi bat jarri behar dut.

Obra egiteko lizentzia edo eraikitzeko baimena behar duzu, lehenik. Baimena prozedura laburraren bidez izapidatu dezakezu, baldin eta behar diren agiri guztiak aurkezten badituzu eta baldintza guztiak betetzen badituzu.

Eskaera garabia instalatu baino lehen egin behar duzu.

Baimenik eskatu behar dut, kalean jarduketa bat egiteko?

Emanaldi, kontzertu, antzezpen eta beste ekitaldietarako baimena, ekitaldia noiz den eta, gutxienez, 15 eta 25 egun bitarte lehenago eskatu behar da, ekitaldiak hila-bete baino gutxiago irauten badu eta kalean edo halakorik egiteko lizentziarik ez duen lokal batean egitekoa bada.

Irekitzeko lizentzia duten lokale pribatuetarako lizentziak Hirigintza eta Etxebizitza Alorrean eskatu behar dira. Leku irekietarako, eremu publikorako eta kaleetarako lizentziak Herritarren Segurtasuneko Alorrean eskatu behar dira.

Gurekin jarri harremanetan, eta aurkeztu behar dituzuen agirien berri emanen dizugu. Bestela, Udalaren web gunean egin kontsulta.

Udaleko erregistroak

Hirigintza eta Etxebizitza Alorra

☎ 948 420380

☎ 010

Herritarren Segurtasuneko Alorra

☎ 948 420648

www.pamplona.es

Planoak, espedienteen fotokopiak...

Ba al dut jakiterik hirigintza-proiektu jakin batek orube edo eraikin jakin bat ukitzen duenetz?

Hirigintza eta Etxebizitza Alorrean (Armada etorbidea, 2-5. sol.), edozein finka edo oruberan hirigintza-kalifikazioari buruzko argibideak emanen dizkizugu, bai eta hiriko edozein alde ukitzen ahal dituzten hirigintza-planei buruzkoak ere.

Aurrekoaz gain, hirigintzako txosten eta ziurtagiri bat eskatzen ahal duzu, idatziz. Halako agiri batek hirigintzako ukipenei buruzko argibideak ematen ditu, bai eta eraikin jakin bat bat non altxatu den eta orube horren eraikuntza-datuak ere. Zerbitzua ordainpekoa da.

Hiriaren edo eraikin baten plano bat behar dut.

Merkataritza eta Turismoko Alorrak kale-plano bat argitaratzen du. Alorreko bulegoetara (Udaletxeko 4. solairua) jo dezakezu, horren eske, baina lehenago dagokion tasa ordaindu behar duzu Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea, 11-3. sol.)

Bestalde, Informazio eta Turismo Bulegoan (Hilarión Eslava k., 1), Iruñeko plano turistikoa eskuratzen ahal duzu, doan. Hor ere hiriko kale-planoa eskuratzen ahalko duzu, betiere ordainduta.

Hainbat planoren fotokopiak behar ditut.

Udaleko erregistroetan hala egiaztagiriak nola bestelako agiriak -espedienteen parte baten edo planoen fotokopiak, kasu- eskatzen ahal dituzu. Hirigintzaren kasuan (etxebizitzaren planoen eskaera), eskaeraren arrazoiak adierazi behar dituzu. Zerbitzua ordainpekoa da.

Hirigintza eta Etxebizitza Alorra

☎ 948420380

Udaleko erregistroak

Merkataritza eta Turismo Alorra

☎ 948 420731

Informazio eta Turismo Bulegoa

☎ 848 420420

Udaleko erregistroak

Pasabideak

Pasabide bat daukat (edo behar dut).

Espaloia erabili behar baduzu, ibilgailu pribatuak eraikin batera sartu eta bertatik irteteko, pasabideetarako lizentzia eskatu behar duzu, eta urteko tasa ordaindu.

Edonola ere gogoratu lokalek irekitzeko lizentzia izan behar dutela, eta familia bakarreko etxebizitzek, lehen erabile-rarakoa, eta espaloiko zintarria beheratu behar izanez gero, obrak eskatzailearen kontura joanen direla.

Dagoeneko pasabide bat baduzu eta zerbait aldatu behar baduzu (aldaketa fisikoa, titularrez aldatzea edo baja ematea), eskabidea aurkeztu behar duzu. Baja emateko eta titularrez aldatzeko, urte osoko tasa ordaindu behar da, halako era non titular berriak hurrengo urtetik aurrera ordaindu beharko baitu. Orobat, pasabidea aldatu, konpondu, hobetu edo hiriko eredura egokitzeko obrak egiteko zein pasabidea ezabatzeko, obra txikietarako lizentzia eskatu beharra dago, bai eta dagokion tasa ordaintzekoa ere.

Iraganeko pasabideen tasa ordaintzeko gaztigua galdu dut (edo ez dut jaso).

Egun, egutegia ezartzen dugu, aldizkako zergak eta tasak ordaintzeko epeak adierazita. Edozein arrazoi medio eskura ez baduzu, behin ordaintzeko epearen lehen hilabetea bukatuta, ordaintzeko gaztigua, kopia bat eskatzen ahal duzu.

Gogoan hartu: aldizka kobratzen diren zerga gehienak helbideratu ditzakezu, zure kontu korrontean edo aurrezki libretan. Kreditu-txartelarekin ere ordain dezakezu (Visa, Mastercard edo Eurocard).

Udaleko erregistroak

Udaleko erregistroak
www.pamplona.es

Behin-behineko pasabidea behar dut.

Aldi baterako aparkatzeko lekua erreserbatzeko baime-na behar baduzu -etxe-aldaira, obrak, zama-lanak edo beste direla bide-, 24 ordu lehenago aurkeztu behar duzu baimen-eskaera, behar diren seinaleak paratze aldera. Herritarren Segurtasuneko Alorrean aurkeztu behar duzu (Iratxeko monasterioaren k., 2), zein unitatek bideratu behar duen eta horretan. Baimena eskabidea aurkeztu eta berehala sinatzen du aretoburuak. Zerbitzua ordainpekoa da, eta tasak erreserba-egunen eta eskatutako espazioaren arabera aplikatzen dira.

Etxebizitza: erosketa eta jabetza

Babes ofizialeko pisu bat eskatu nahi dut.

VINSAk kudeatuta berritik eraikitzen diren etxebizitza babestuak deialdi publiko bidez esleitzen dira, komunikabideetan deialdiaren berri ematen dutelarik. Aurkeztu beharreko agiriak: NANen fotokopia, familia-liburua eta azken urteko errenta-aitorpenaren fotokopia. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo VINSAREN bulegoetara (Sarasate pasealekua, 38-2. sol.), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Ba al da minusbaliatuendako egokitutako babes ofizialeko pisurik?

Etxebizitza-sustapen guztietan % 3 etxebizitza egokitu gisa erreserbatzen dira, halakoak non haietan gurgil-aulkia erabil baitaiteke, minusbaliatuek autonomia edukitze aldera. Sustapen publikoen eta haietan parte hartzeko baldintzen berri emanen dizugu, eta zure eskaera idatziz jasoko dugu.

Herritarren Segurtasuneko Alorra

☎ 948 420648

Vivienda de Navarra (Vinsa)

☎ 948 220819

Vivienda de Navarra (Vinsa)

☎ 948 220819

Zer laguntza-mota eskuratzen ahal dute diru-baliabide gutxi duten pertsonak, etxebizitza bat lortze aldera?

VINSAk berreskuratzen dituen bigarren eskuko etxebizitza babestuak diru-baliabide gutxi duten pertsonentzat dira. Bestetik, alokairuko etxebizitzak sustatzen dira, gazteek eskuratzeko modukoak. Jada abiaraziak edo aurreikusiak dauden bestelako etxebizitza-sustapenetan parte hartzeko argibideak ere emanen dizkizugu.

Vivienda de Navarra (VINSA)

☎ 948 206299